

Shhhhh



Visit Enkarterri

Next to Bilbao



Herriak eta hiribilduak

Tradizioa eta modernitatea eskuz esku doaz xarma handiko herrixketan.

Natura

Itsasaldeak eta mendiek bat egiten dute ingurune liluragarrien artean.

Berezko zaporeak

Enkarterriko zapore tradizionalak eta bertoko produktuak dasta itzazu.

Kultura eta tradizioak

Historiaren gorabeherak berezko pertsonalitatea eman diote eskualdeari.





Aurkibidea

Ongi etorri Enkarterrira	5
Enkarterriko mapa turistikoa	6
Burdinaren Ibilbidea	8
Kadaguako Ibilbidea	18
Mendebaldeko Haranak	28
Arkitektura txundigarria	38
Ba al zenekien...?	40
Donejakue Bidea	41
Zure planik onena	42
Enkarterri Bike	50
Eremu naturalak	54
Enkarterri dastatu	60
Jatetxeak	66
Hotel eta landetxeak	68
Enkarterriko agenda	74

Enkarterri Bizkaiko mendebaldeko muturrean dago, natura betean eta Bilbotik oso gertu. Gurean ezusteko panoramikak aurkituko dituzu, Erdi Aroko kaleetan zehar ibiliko zara, munduko kobazulo bitxienean barneratuko zara eta zapore biribilenak dastatuko dituzu. Zeren zain zaude Enkarterri ezagutzeko?

Azalera



500 km²

Nola heldu

Bizkaibus

www.bizkaia.eus

Renfe

www.renfe.com/viajeros/cercanias/bilbao

Feve

www.renfe.com/viajeros/feve

Distantziak

Bilbo	10 km
Gasteiz	65 km
Santander	70 km
Donostia	125 km
Madril	425 km
Bartzelona	640 km

Enkarterriko herriak

Abanto-Zierbena
Alonsotegi
Artzetales
Balmaseda
Galdames
Gordexola
Güeñes
Karrantza Harana
Lanestosa
Muskiz
Ortuella
Sopuerta
Trapagaran
Turtzioz
Valle de Villaverde (Kantabria)
Zalla
Zierbena



ENKARTUR

Martin Mendia, 2
48800 Balmaseda (Bizkaia)
Tel. +34 / 946 80 29 76
www.visitenkarterri.com
info@visitenkarterri.com



KARRANTZAKO TURISMO BULEGOA

Ambasaguas, 22
48891 Karrantza
Tel. 946 806 928
turismo@karrantza.org



SOPUERTAKO TURISMO BULEGOA

Carmen Quintana plaza, 6
48190 Sopuerta
Tel. 946 504 750
sopuertaturismo@sopuerta.biz



ZIERBENAKO TURISMO BULEGOA

La Arena auz., z/g
48808 Zierbena
[Udan bakarrik]



Shhhhh Enkarteri

Ongi etorri Enkarterrira




Armañongo Parke Naturala (Karrantza Harana)

Enkarterri



Kantabria





- 1 Lanestosako Alde Zaharra
- 2 Pozalagua Kobazuloa
- 3 Armañongo Parke Naturala
- 4 San Andres de Biañez elizako margoak
- 5 Karpin Fauna
- 6 La Encartada Fabrika Museoa
- 7 Balmasedako Alde Zaharra
- 8 Enkarterrietako Museoa
- 9 Sopena Abentura
- 10 Armañongo Parke Naturala (Interpretazio Zentroa)
- 11 Loizaga Dorrea
- 12 ARENATZarte
- 13 El Pobaleko Burdinola
- 14 Muñatones Gaztelua
- 15 La Arena Hondartza
- 16 Itsaslur
- 17 Zierbenako Portua
- 18 Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa
- 19 Meatzaldea-Peñas Negras Ekoetxea
- 20 Meztegi Golf
- 21 Dolomitas Antzinako Fabrika Museoa
- 22 Villaverde Haraneko Zentro Etnografikoa
- 23 La Arboledako meatzarien etxea
- 24 Bizkaia Park Abentura
-  Autokarabana gunea
-  Funikularra
-  Bide Berdea
-  Bidegorria



El Pobaleko Burdinola (Musquiz)



Burdinaren Ibilbidea

Burdinaren Ibilbideak Meatzaldeari izena eta nortasuna eman zizkion oinazezko garai batera garamatza. Aire zabaleko meategiak desagertutako mundu baten adierazgarri dira eta izugarritzko panoramikak laga dizkigute, Bizkaiko industrializazioaren bihotzean.



La Arboleda (Trapagaran)

Trapagaranen hasiko dugu ibilbidea, Euskadiko industriaren erraietan. **Larreinetako funikularrak** garai batean aire zabaleko meategiak izan ziren sekulako sakonuneak agerian uzten ditu. Gaur egun, ordea, aintzirak eta gune berdeak dira nagusi. Hemendik kilometro batera **La Arboleda** auzoa zabaltzen da. Bertan bikain kontserbatutako meatzari herrixka bat ikus dezakegu, Europan parerik gabekoa, haraneko ikuspegi hunkigarrien artean.

Meategien ustiapenak auzo eta familia ugari lekualdatu zituen

indarrez. **Ortuellan** dagoen **Meatzaldea - Peñas Negras Ekoetxeak** industriak paisaietan eragindako aldaketak erakustea eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioa handitzea du helburu. Behatoki aparta du meatzaritzak moldatutako ilargi-panoramikaz gozatzeko.

Gallartako auzoraino (**Abanto-Zierbena**) jarraitzen du ibilbideak. Concha II meategiaren ikuspegi txundigarrien artean, **Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa**k urteetan zehar mendietan eta lantegietan jasotako meatze-erreminten

bilduma handienetako bat du. Pobrezia, grebak eta iraultzak langileen eguneroko ogi bilakatu ziren behinola eta **ospe inkonformista eman zioten lurraldeari**.

Ingurumena bere onera ekartzeari ekion dio Meatzaldea azken urteotan. **Muskiz** eta **Zierbenako** kostaldean zehar hedatzen den **La Arena hondartza** prozesu honen adibide bikaina dugu. Hareatza surfa eta bestelako ur kirolak egiteko leku gogokoenetako bat bihurtu da Kantauri Itsasoan. Hondartzako itsasaldiek izugarritzko atzera-egite



Concha II Meategia (Gallarta, Abanto-Zierbena)



espektakulua eskaintzen digute, itsasoko labarren ertzetik bihurka doan **Itsas lur pasealekutik** primeran ikus dezakeguna.

Hemendik oso gertu, **Zierbenako portuak** betiko xarma tradizionala gorde du eta arrantza- eta kirol-ontziez gainezka azaltzen da oraindik ere, asteburuetan batez ere. Xelebreak dira badian zehar hain ugari diren **marinel-giroko jatetxeak**. Sekulako arrain eta itsaskiak (hegaluzea protagonista hutsa da) dastatzeko aukera bikaina izango dugu giro tradizional batean.

Erromatarrek Enkarterriko meatze-aberastasuna ezagutzen

zuten jadanik. Errementarien trebetasuna oso preziatua zen Erdi Aroan. **El Pobalek (Muskiz)** minerala metal bihurtu du XVI. mendetik. **Barbadun** ibaiaren arroan dago eta Euskadin jatorrizko makineria –gurpil, hidraulikoa, harrizko hauspo bitxiak eta gabia– mantendu duen **burdinola** bakarra da. Larunbatetan **erakustaldi osoa** eskaintzen digu errementariak, aspaldi batean ezinbestekoak ziren eguneroko objektuak sortuz: nabarrak, mailukak, iltzeak, etab.

Meataritzaren oinazeek luxuari ematen diote bidea Galdamesen. Mendien artean ezkutatuta, **Europako Rolls-**

Royce bildumarik handiena gordetzen duen XIV. mendeko **Loizaga Dorrea** dago. 1910 eta 1998 bitartean fabrikatutako modelo guztiak ditu, beste hainbat luxuzko ibilgailuez gain. San Pedro auzoan, gotorlekutik ez oso urrun, **Martínez de las Rivas** ontzi-jabearen omenez egindako estatua ikus dezakegu. Burdin-meategietako lan-eszenak grabatuta ditu oinarrian eta, adituaren arabera, Bizkaiko estatuen artean **bikainenetako bat** da.

Sopuertan eskualdeko leku adierazgarrienetako bat aurkituko dugu, lurraldearen askatasunen eta singularitatearen adierazle:



Zierbenako Portua



Itsaslur (Muskiz)



Abellanedako Batzar Etxea, gaur egun **Enkarterrietako Museoa**. Bertan eskualdeko herri bakoitzeko ordezkariak elkartu ziren mendeetan zehar. Museoa eskualdeko historia, ondarea eta etnografia ikertzeko eta zabaltzeko gunea da.

La Linde antzinako meatzari auzoan ondare industrial izendatutako bi labe aurkituko ditugu, **minerala kiskaltzeko** erabiltzen zirenak. Aldamenetan hainbat ibilbide eta olgetarako parkeak ditugu, picnic-ak antolatzeko eta inguruneaz gozatzeko apartak direnak.

Ibilbideak **Burdin Mendien Bide Berdea** du ardatz, Bizkaiko luzeena. Duela hainbat hamarkada eraitsitako meatze-trenaren bidea jarraitzen du 42 kilometrotan zehar. Oinez edo bizikletaz egiteko aukera dugu, eta baita natura betean aktibatzeko makina bat jarduera.

Azkeneko meategiak aspaldi itxi zituzten, baina langileen deiadar oraindik ere entzun dezakegu. Tradizioak dio **Trianoko Mendietan Athleticen garaipenak** ospatzeko abesten dugun oihua jaio zela: **Aliron!** 'All iron' antzeko zerbait oihukatzen

zuten meatzariak burdin hutsa agertzen zenean, ordainsaria jasotzeko asmoz. Gaur egun, gure **arbasoen memoria** bizirik mantendu eta omentzeko kemena du euskal industriaren bihotzean dagoen Burdinaren Ibilbideak. Izan ere, hemen, Burdin Mendien erraietan, Bizkaiko industrializazioaren sustraiak errotzen dira.



Kiskalketa labeak (Sopuerta)



Loizaga Dorrea (Galdames)



Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa



Campodiego auz., 3 Gallarta (Abanto-Zierbena)
Tel: 946 363 682
Astearretik ostiralera: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Larunbatak eta jaiegunak: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igandeak: 11:00etatik 14:30era. 20:00etara uztailearen 1etik abuztuaren 31ra bitartean. Bisita gidatuak erreserbarekin.
www.meatzaldea.eus

El Pobaleko Burdinola



El Pobal auz. Muskiz
Tel: 629 271 516
Apirilaren 15etik urriaren 15era: Astearretik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara. **Urteko gainontzeko sasoietan:** Astearretik igandera 10:00etatik 14:00etara. Bisita gidatuak. Erakustaldi osoa zuzenean larunbatetan 12:00etan.
www.bizkaikoa.bizkaia.eus/elpobal

Loizaga Dorrea. Auto Klasikoen Museoa.

Concejuelo auz. Galdames
Tel: 946 802 976 / 649 412 001
Ordutegia: Igande eta estatu jaiegunetan: 10:00etatik 15:00etara. Gainontzeko egunetan: taldeentzako bisita gidatuak erreserbarekin. Audiogidak.
www.torreloizaga.com

Enkarterrietako Museoa



Abellaneda auz. Sopuerta
Tel: 946 504 488
Udako egutegia: (uztailetik irailera): Astearretik igandera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara.
Urteko gainontzeko sasoiak: Astearretik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Igande eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara.
www.enkarterrimuseoa.eus

Muñatones Gaztelua

Eskola-umeentzako bisita gidatuak maiatza, ekaina eta urtarrilean. Publiko orokorra: Igandeak ekainaren 15etik irailaren 14ra 10:30 eta 12:30ean. Bisita gidatuak igandeetan erreserbarekin (629 271 516).

La Arboledako Meatzarien Herrixka

La Arboleda auz. Trapagaran
Tel. 946 363 682
Bisita gidatua La Arboledako meatzarien herrixkan erreserbarekin.
www.meatzaldea.eus



Meatzaldea - Peñas Negras Ekoetxea

La Arboleda – Muskiz errepidea, km 1,16. Ortuella.
Tel.: 946 338 097
Ordutegia: Asteleheneretik igandera eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



Galdameseko Upategiak



Concejuelo auz. Galdames
Tel: 627 992 063
www.vinasulibarria.com



Sopuerta Abentura



San Cristóbal auz. (San Viator ikastetxearen atzealdean). Sopuerta
Tel: 663 80 56 09
www.sopuerta-abentura.com



Meaztegi Golf

Triano - La Arboleda Errepidea. Ortuella.
Tel: 946 364 370



Mendian Zaldiz

El Castaño auz. Sopuerta
Tel: 649 988 473
www.mendianzaldiz.com



Larreinetako Funikularra

946 60 40 08
www.euskotren.eus/euskotren/funicular



La Arena Surf Center

La Arena auz. 21 - Lonja 6. Zierbena.
Tel: 946 366 381 / 617 480 401
www.laarenasurfcenter.com



Arran Zerbitzu Kulturalak

Buenos Aires auz., 1 (Preventorio
eraikina, mod. 8) Abanto-Zierbena
arranzk.wixsite.com/arran

Jatetxeak

Basilio Jatetxea

El Crucero auz.
Sopuerta
Tel: 946 50 4129

Mendiondo Jatetxea

Revilla auz., 1 San Martín
de Carral. Sopuerta
Tel: 946 504 452
www.mendiondo.com

Batiz Casa Roble Jatetxea

Mercadillo auz., 52
Sopuerta
Tel: 946 50 47 34

Mugarri Jatetxea

Pobeña Plaza, z/g.
Muskiz
www.apartamentosmugarri.com

Gloria Jatetxea

El Puerto auz., 25
Zierbena
Tel: 946 365 013

Zierbenako Batzokia

El Puerto auz., 19-21
Zierbena
Tel: 946 366 374
www.hotelkaiarural.com

Hotel eta landetxeak

Pikatzaneia Apartamentuak

Cañedo auz., 8 Bezi
Sopuerta
Tel: 617 471 936
www.pikatzaneia.com

Bizkar Bare Apartamentuak

El Acebal, 7 - Arce auz.
Sopuerta
Tel: 658 039 393
www.bizkar-bare.com

Mugarri Apartamentuak

Pobeña plaza, z/g
Muskiz
Tel: 946 707 799 - 617 038 292
www.apartamentosmugarri.com

Las Palmeras Hotela

Fuente Vieja Hiribidea, 9
Muskiz
Tel: 946 706 392 - 647 852 800
www.laspalmerashotelrural.com

Kaia Hotela

El Puerto auz., 19
Zierbena
Tel: 946 366 374 - 636 204 423
www.hotelkaiarural.com

Ortuella Hotela

Bilbao Hiribidea, z/g
Granada Industrialdea, 1 Ortuella
Tel: 946 353 204
www.hotelortuella.com

Bisita gidatuak eta ibilbideak

Leykatur

Karrantza
Tel: 616 498 621
www.leykatur.com

Alboan

Balmaseda
Tel: 605 757 420
www.alboanserviciosturisticos.com





Kadaguako Ibilbidea

Sekretuz, xarmaz eta naturaz beteriko ibilbidea jarraitzen du Kadaguak Enkarterri zehar, Balmasedatik Alonsotegiraino. Jauregiak, dorretxeak eta baserriak zeharkatzen ditu **ibaik** bere urak Bilboko itsasadarrera isuri arte.



San Severino plaza (Balmaseda)

Kadaguari buruz berba egiten dugunean **Enkarterri** etortzen zaigu burura, nahitaez. Ibaiaren urak eskualdeko historiaren lekuko eta eragile izan dira mendeetan zehar: merkatariak eta erromesak agurtu zituzten aspaldi batean, gorriz tindatu ziren Erdi Aroan eta sekulako jauregiak eta luxuzko etxeak eraiki ziren bere ertzean zehar geroxeago.

Balmasedatik sartzen da Kadagua Enkarterrin. Bere ur korronteak **Boinas La Encartada** ehun-lantegiko makineria martxan ipini zuen

XIX. eta XX. mendeetan. Hemen hasiko dugu gure ibilbidea, eskualdeko eta Euskadiko jantzirik esanguratsuenaren historiari buruz arituz: **txapela**.

La Encartada Fabrika Museoak jatorrizko dekorazioa eta dotazio teknologikoa bere horretan mantendu ditu 1892tik. Lantegiaren eraikin nagusia, makineria eta langileen etxebizitzak garai hartara garamatzagun **museo industrial** baten parte dira gaur egun, hasierako poleak, uhalak eta turbinekin batera.

Balmasedako alde zaharra Erdi Aroko zubiaren beste aldean dago. Garai batean bidegurutzea izan zen, kostaldea eta barnealdearen arteko derrigorrezko igarobidea. Merkatariek zubia gurutzatzen zuten euren salgaiekin eta zerga berezia ordaintzen zuten herrigunera sartzeko. Hala, merkataritzaren babesean garatu eta **Bizkaiko lehenengo hiribildua** bihurtu zen Balmaseda 1199ko urtarrilaren 24an.

Bere kaleetan arkitektura estilo anitz elkarrekin ikusteko



aukera izango dugu, hala nola **San Severino eliza**, gotikoa; **Horkasitas** eta Urrutia jauregiak, barrokoak; edo udaletxea, tokikoek betidanik 'La mezquita' deitu izan dutena, inspirazio mudejarreko zutabe-patio bikaina baitu kanpoaldean.

Balmasedako alde zaharreko bi museoak **–Historiarena** eta **Pasio Bizidunaren Interpretazio Zentroa**– hiribilduaren historiaren eta tradizioen lekuko dira. **Balmasedako Nekaldia** ezinbesteko ekitaldi artistikoa

dugu, gurutziltzaketaren errealismoa eta herritarren parte-hartze masiboari esker. Euskadiko prozesiorik harrigarriena izendatu dute askok eta milaka lagun erakartzen ditu urtero, fededun eta fedegabeak.

Ibilbideak **Zallaraino** jarraitzen du Kadaguako ertzetik. **Bolunburuko** olgeta-gunea bikaina da geldialdia egiteko eta indarrak berreskuratzeko. Hemendik oso gertu **monumentu-multzo** aparta ezagutzeko aukera izango dugu, dorretxe batek,

Santa Ana baselizak, burdinola baten hondakinek eta Burdin Aroko kastro batek osatua.

Sineskeria-kontuek sustraitze handia izan zuten Zallan garai batean. Europa osoko ibiltari asko pasa ziren herritik mendeetan zehar. Zalla **Artilearen ibilbidearen parte** izan zen, eta baita Santiagora doan Ahaztutako bidearena ere. Elezaharrak dio **San Pedro de Zarikete** baselizara bide batetik joanez eta bestetik itzuliz begizkoen aurkako babesa aurkitzen zutela





erromesek. **San Pantaleon** basilizan Lucía de Aretxaga auzokoa erre zuen Inkisizioak. Askok dira gertaera honen inguruan kontatutako istorioak.

Enkarterrik **bandokideen arteko bortizkeria eta gudak** jasan zituen Erdi Aroan. Eskualdean dauden **dorretxeak** borroka horien lekuko eta parte izan ziren. **Murgako jauregia** (Zallako Udala bertan dago gaur egun) dorretxea izan zen jatorrian, eta geroxeago orain antzeman

dezakegun eraikin barrokoa bihurtu zuten. Udalerriko erdialdean dago, zuhaitz bitxiez beteriko lorategiz inguratuta.

Güeñesen loria handiagoko garai baten aztarnak ikus ditzakegu. **Santa María Eliza**, elementu gotiko eta errenazentistaz nahasiz, eskualdeko adierazle arkitektoniko garrantzitsuenetako bat da. Baita **Villa Urrutia** etxea ere. Bere lorategietan **ARENATZarte** eskultura parkea dago. Bertan naturak

eta arteak bat egiten dute ehun urtetik gorako zuhaitz eta abangoardiako eskulturen artean.

Etxea Leandro Urrutia indianoaren aginduz eraiki zuten. Urrutia Mexikon aberastu zen eta Ameriketatik eta beste bazterretatik zuhaitz eta landare exotikoak ekarri zituen Güeñesera. Lorategiak **kutsu erromantikoa** du (pergoleta eta urmaelarekin) eta zoragarria da irakurtzeko, erlaxatzeko edo bere pasealekuetatik ibiltzeko.



Indianoak XIX. mendean Ameriketara aberastutako auzokoak ziren, **Gordexolan beste inon ez bezala** nabarmendu zirenak. Euren etxeak sofistikazio eta bitxikeriaren adierazle apartak dira. Ikaragarriko lorategiak dituzte, palmondoz eta bestelako zuhaitz tropikalez jantzita. Indianoen adibidea jarraituz, Enkarterriko gazte askok Ameriketara jo zuten, hainbeste zortetik gabe.

Indianoek herri-lan eta karitateko ekintza ugari finantzatu

zitzuten, baina sarritan **jauntxokerietan** erori ziren ere.

Kadagua ibaiak agur esaten dio Enkarterri **Alonsotegin**. Bizkaiko herri maldatsuenetako bat da, kirolarien paradisu, **Ganekogorta** eta **Pagasarri** mendien oinaldean baitago. Mendi honetan XVII. mendeko elurtegia topatuko dituzte mendizaleek. Elurra biltegitratzeko erabiltzen ziren hozkailuak existitzen ez zirenean. Izotza oso preziatua zen elikagaiak kontserbatzeko, eta aspaldi batean errokatibak egiten ziren

XV. mendeko **San Antolin** basilizan elurra egin zezan.

Kadaguak Bilboko itsasadarrera isurtzen ditu bere urak. Hogeitahamar kilometrotan zehar **hiriarekiko gertutasuna**, sekulako **ondarea** eta **naturak** eskainitako aukera amaigabeak elkartzen ditu Enkarterriko ibairik ezagunenak, sekretuz, xarmaz eta naturaz beteriko ibilbide batean. Ezinbesteko jomuga da kultura eta natura maite dutenentzat.



Elurtegia Pagasarri Mendian (Alonsotegi)



Santa María Eliza (Güeñes)



La Encartada Fabrika Museoa

El Peñeco auz., 11 Balmaseda
Tel: 946 800 778

Apirilaren 15etik urriaren 15era eta Aste Santuan:

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik
14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Larunbatak: 10:30etik 19:00etara |
Igandeak: 11:00etatik 15:00etara

Urteko gainontzeko sasoietan:

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara.
Larunbatak: 10:30etik 19:00etara |

Igandeak: 11:00etatik 15:00etara.

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada

Balmasedako Historia Museoa

Martín Mendia, 27 Balmaseda
Tel: 657 795 806

Ordutegia: Asteartetik igandera eta jaiegunetan:

10:00etatik 14:00etara. Ekainaren 1etik
irailaren 30era: Baita asteazken, ostegun
eta ostiraletan 17:00etatik 19:30era.

Balmasedako Pasio Bizidunaren

Interpretazio Zentroa

Campo de las Monjas. Balmaseda. Tel: 946 801 438

Ordutegia: Asteartetik igandera eta

jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara. Ekainaren
1etik irailaren 30era: Baita ostiraletan
(ekainetik irailera) 17:00etatik 19:30era.

www.viacrucisbalmaseda.com

ARENATZarte

Eskultura parkea aire zabalean

Enkarterri, 5 Güeñes

Sarrera librea. Bisita gidatuak
erreserbarekin (946 802 976).



Bizkairoute

Tepeyac urbanizazioa, 11 Beh.
Zalla

Tel: 627 65 83 91

www.bizkairoute.es



Zallako Autokarabana Gunea

Gallardi auz., 6
Tel: 946 39 00 01

www.zalla.org

Balmasedako Autokarabana Gunea

Las Laceras auz.
Tel: 946 80 29 76

www.balmaseda.eus



Virgen de Lorea Upategiak

Lorea auz. Otxaran - Zalla

Tel: 629 455 620

www.bodegasvirgendelorea.com

Egia Enea Txakolina

Castillo La Piedra, z/g. Balmaseda
Tf.: 661 922 101

Markoleta Txakolina

Markoleta auz., 10 La Quadra - Güeñes
Tel: 609 018 820

Ulibarri Artzaiak Txakolina

Isuskiza Handia auz, 1 Gordexola
Tf.: 665 725 735

Txabarri Txakolina

Muñeran auz., 17 Aranguren - Zalla
Tel: 658 728 865

www.txakolitxabarri.com



Bizkaia Abentura Park

Arangoiti, 1. 1D - 1H.
Güeñes

Ordutegia: Astearteak: 17:00etatik 20:30era |
Ostiralak: 17:00etatik 21:00etara | Larunbatak:
11:30etik 15:30era eta 17:00etatik 21:00etara
| Igandeak: 11:30etik 15:30era eta 16:30etik
20:30era

Tel.: 946 859 761 / 688 603 814

www.bizkaiaparkabentura.com


Bisita gidatuak eta ibilbideak

Leykatur 
Karrantza
Tel: 616 498 621
www.leykatur.com

Alboan
Balmaseda
Tel: 605 757 420
www.alboanserviciosturisticos.com

Jatetxeak


Albokak Restaurant  
Bilbao-Balmaseda Errepidea (10. Irt.)
Arbuio 11. Alonsotegi
Tel: 944 982 370
www.albokakjatetxea.com



San Roque Komentua 
Campo de las Monjas, 2
Balmaseda. Tel: 946 102 268
www.hotelsanroque.es

Pintxo i Blanco 
Martín Mendia, 5
Balmaseda. Tel: 626 166 665
www.pintxoiblanco.com

Karrantza Gastronomika Turistika
Karrantza
Tel: 627 340 218

Komentu Maitea 
Sandamendi auz., 41 Gordexola
Tel. 946 798 082
www.komentumaitea.com

Aretxaga Jatetxea 
Aretxaga auz., 16
Zalla
Tel: 946 390 679

Arcos de Quejana Jatetxea  
Beotegui errepidea, z/g
Kexaa - Araba
Tel: 945 399 320
www.arcosdequejana.com

Hotel eta landetxeak

San Roque Komentu Hotela
Campo de Las Monjas, 2
Balmaseda
Tel: 946 102 268
www.hotelsanroque.es

Isasi Hotela
Zubiete auz., 53
Gordexola
Tel: 946 798 224
www.hotelisasi.com

Baserri Taboada Landetxea
Allende auz., 4 - Iratzagorria
Gordexola
Tel: 944 499 231 - 675 715 298

Komentu Maitea Hotela 
Sandamendi auz., 41
Gordexola
Tel. 946 798 082
www.komentumaitea.com

Ibarra Hotela
Llantada auz., 11
Zalla
Tel: 618 789 720
www.hotelibarrazalla.com

Arcos de Quejana Hotela 
Beotegui errepidea, z/g
Kexaa - Araba
Tel: 945 399 320
www.arcosdequejana.com



Relux-eko Leihoa (Karrantza)



Mende- baldeko Haranak

Natura betean daude Enkarterriko mendebaldeko haranak. Eskualdeko urruti eta bukolikoenak dira. Bere gailur eta basoen artean **makina bat ibilbide eta ehundaka** leize zabaltzen dira. Errekorrez, sekulako panoramikaz eta sorpresaz beteriko lurraldea da.



Artzetalesen hasiko dugu ibilbidea. Haitz harritsu inguratutako haran pintoresko hau garrantzi handiko trenbide-bidegurutzeta izan zen garai batean. Trenak meategietatik irteten ziren kostaldeko kargalekuetaraino, haranak zeharkatuz. Aspaldi eraitsi zuten trenbidea eta bere lekuan **Burdin Mendien Bide Berdea** aurkituko dugu gaur egun. **Traslaviña** auzoko tren geltokian du hasiera eta Bizkaiko luzeena da, 42 kilometroko luzerarekin.

Bide eta zidorrez beteta dago Enkarterri. Izan ere, eskuz esku doaz eskualdea eta

xendazaletasuna. **Tejeako basoa Valle de Villaverdeko** Kantabriar enklabean dago eta eremu aparta da naturan murgiltzeko. Pago, haritz eta gaztainondo jantzitako sekulako parajea dugu. Aspaldi batean basoak eta naturak eguneroko bizitzan erabateko eragina izan zuten. Villaverdeko **Zentro Etnografikoak** denboran bidaiatu eta iragan hori ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

Turtziozek berezko pertsonalitatea eta arkitektura ditu. Hemen Enkarterri eta Euskadin bakarra den **baserri**

mota aurkituko dugu. Agüera ibaiaren ibilguan agertzen da, Bizkaiko eta Kantabriako ohizko landetxeen ezaugarriak nahasiz. Aurrealdean mutur batetik bestera zabaltzen diren balkoiak ditu, askotan lorez apainduta. Erdi Aroko guden ostean Enkarterri bizi zuen berpiztearen adierazle da Turtziozeko baserria, eta kutsu bukolikoa ematen dio haranari.

Baselizen ondoan eraikitako **zezen-plazak Urrezko Mendetan bizi izandako oparotasunaren beste adierazletako bat dugu.** Korridak meza ostean egiten



San Roque elizaren zezen-plaza (Turtzioz)

ziren erromeriak alaitzeko. Ezohiko arkitektura erlijioso honen adierazgarri nagusiak Artzentes, Karrantza, Sopena eta Turtziozen nabarmentzen dira. **San Antolín multzoak** (Artzentes), esaterako, basiliza, zezen-plaza eta askaldegia txiki bat ditu.

Naturaz gozatzeko eszenatoki ezin hobea aurkituko dugu oroz gain Enkarterriko mendebaldeko haranetan. Karrantza eta Turtzioz artean **Armañongo Parke Naturala** hedatzen da. Parkeko paisaia karstikoek eragindako mikroklima

bereziari esker Mediterraneoako artadi eta pagadiak hazi dira Kantauri itsasotik hamabost kilometrotara besterik ez.

Parkeko gailur eta basoen artean **ehundaka leize** zabaltzen dira. Askok itzelezko sakontasuna dute eta espeleologo profesionalak baino ezin dira barneratu lurzoruan. Hemen dago, esaterako, La Torca del Carlista, Europako leizerik handiena. Ezagunena, ordea, **Pozalagua kobazuloa** da, 2013an Guía Repsol-eko txokorik onena hautatutakoa.

Naturaren zirrara beste inon ez bezala azaltzen da Pozalaguan. Ikuskizun bakarra ezkutatzen du haitzuloak: **forma imajinaezinak** hartzen dituzten **estalaktita eszentrikoen** pilaketarik handiena. Formazio hauek grabitate-legeei aurre egiten diete itxuraz eta mosaiko liluragarria osatzen dute. Australian baino ez da ematen halako kontzentrazioarik.

Lurpeko multzoa harrigarria da. Ibilbideak **zutabe, kolada eta aintziren** artean sigi-saga egiten du. Kobazuloaren sabaitik estalaktita eszentrikoak milaka



eta nahi bezala erortzen dira. Izugarritzko koralezko uharrria osatzen dute itxuraz estalaktitek, Lurraren erraietan zehar zabaltzen den baso modukoa.

Kobazuloaren aurrealdean Armañongo Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa dago. **Parketxeak** Armañongo eta Ordunte mendietako flora eta faunari buruzko informazioa, erakusketak eta erreprodukzioak ditu. Halaber, inguruko haranak eta paisaiak ikusteko behatoki aparta du. Babes Bereziko Gune izendatutako gailur-multzoz

honetan Zalama edo Balgerri mendi xebreak nabarmentzen dira, besteak beste.

Kasualitatez aurkitu zuten Pozalagua 1957an, **Donosa harrobian** gertutako leherketa batek mendia zulatu ostean. Minerala gaur egun Parketxea den lekuan birrintzen zen eta **Ambasaguas** auzoko **Dolomitas Fabrikaraino** eramaten zuten aireko tranbia baten bidez, Bizkaiko azkenekoa. Tranbia eskuz mugitzen zuten polea erraldoiak oraindik ere ikus ditzakegu museo bihurtutako lantegian.

Karrantza eskualdeko haranik zabalena da eta natura betean une gogoangarriak pasatzeko aukera anitz gure eskura jartzen ditu. **Karpin Faunak** berezko habitatera itzuli ezin diren animaliak hartzen ditu, bizimodu duina izan dezaten eta bisitariak animalien aurkako bortizkeriaz kontzientziatzeko. Panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak edo guanakoak zelatan bizi dira **naturaren itxurazko baretasunaren** erdian. Segurutzat jo dezakegu etxeko txikienek primeran pasako dutela.



Armañongo Parke Naturala



Karpin Fauna (Karrantza)



Karrantzako loriazko iragana nonahi azaltzen da ibilbidean zehar: indianoen etxeetan, eliza eta basilizetan, jauregietan...

San Andrés de Biañez elizako Errenazimenduko margoak halabeharrez aurkitu zituzten, tenplua berritzen ari zirela. Langileek erretaula bat desmuntatu behar izan zuten eta orduantxe XV. mendeko **fresko izugarria** agertu zen. Kantauriar eskualdeko margolan baliotsuen artean nabarmentzen da eta erreserbarekin bisita daiteke.

Lanestosa, Bizkaiko herri txikiena bada ere, hiribildua izan

da XIII. mendetik. Denboraren eraginari osorik eutsi dio, interes nabarmeneko lekuetan antzeman dezakegun moduan, hala nola harriztatutako Erdi Aroko kaleetan, balkoi luzeetako etxeetan, Gaztela eta Laredoko portua lotzen zituen **zubi zahar**ean edota **antzinako labe karegilean**.

Historiaren lekuko izan da hiribildua aspalditik. Gizakia hemen bizi zen **Paleolitik**oan dagoeneko, garaiko pinturek erakusten duten bezala. Halaber, **Karlos V.a** Lanestosatik pasa zen Yusteko monasteriorainoko bidean.

Enkarterriko mendebaldeko haranek eskualdeko esentziak mantendu dituzte mendeetan zehar. **Natura, ondarea eta gastronomia** eskuz esku doaz errekorrez, sekulako panoramikaz eta sorpresaz beteriko lurralde honetan.





San Andres de Białñezko margoak

Białñez auz. - Karrantza Harana
Bisita gidatuak erreserbarekin
(946 806 928)

Dolomitas Antzinako Fabrika Museoa

Ambasaguas auz.
Karrantza Harana
Larunbatak: 11:00etatik
14:00etara eta 16:00etatik
18:00etara | Igandeak: 11:00etatik
14:00etara. Gainontzeko
egunetan: bisita gidatuak
erreserbarekin (946 806 928).

Villaverde Haraneko Zentro Etnografikoa

La Matanza auz., 4 Valle de
Villaverde (Kantabria)
Bisita gidatuak erreserbarekin
10 pertsona baino gehiagoko
taldeentzat (946 809 005).



Armañongo Parke Naturala. Parketxea

Ranero auz. (kobazuloaren
aurrean). Karrantza Harana
Tel.: 946 560 079
Orduetgia: Asteartetik igandera
10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 18:00etara.

Armañongo Parke Naturala. Interpretazio Zentroa

Lehendakari Agirre
Etorbidea, 59 Turtzioz
Orduetgia: Asteburu eta
jaiegunetan 10:00etatik 14:30era.
Uztaila eta abuztuan: Asteartetik
igandera eta jaiegunetan
10:00etatik 14:30era.

Pozalagua Kobazuloa

Ranerotik 2 km-ra.
Karrantza Harana
Tel.: 946 806 928 / 649 811 673
www.cuevadepozalagua.eus

Zabalik hurrengo egunetan:
**Asteburuak, zubiak eta
jaiegunak urte osoan zehar.**

Aste Santutik urriaren 16ra
arte 11:00etatik 20:00etara.
Azkenengo pasea 19:00etan.
Urteko gainerako egunetan
11:00etatik 18:00etara.

Azkenengo pasea 17:00etan.
**Ekainaren 15etik irailaren
15era bitartean:** asteartetik
igandera eta jaiegunetan
11:00etatik 20:00etara.

Azkenengo pasea 19:00etan.

Urteko gainerako egunak:
hitzartutako bisitak (gutxieneko
taldea: 10 pertsona).

**Aste Santua (ostegun santuko
eta pazkoako astea):** asteartetik
igandera eta jaiegunetan
11:00etatik 20:00etara.

Azkenengo pasea 19:00etan.
**Gabonak (gabon astea eta
urte berri on eguna):** asteartetik
igandera 11:00etatik 18:00etara.
Azkenengo pasea 17:00etan.

Itxita: astelehen guztiak
(jaiegunak, zubiak eta
irailaren 18an izan ezik).



Karpin Fauna

Białñez auz., 37 Karrantza Harana
Tel.: 946 107 066

www.karpinabentura.com
Udako ordutegia (uztailaren 1etik
irailaren 15era): Astelehenetik
igandera 11:00etatik 19:00etara.

Neguko ordutegia: Asteburu
eta jaiegunetan 11:00etatik
19:00etara (17:00etara
urriaren 17tik martxoaren
31ra). Gainontzeko egunetan
erreserbarekin. Ikasleen
oporraldian zabalik:
Aste Santuan, Gabonetan
(abenduaren 24, 25, 30, 31 eta
urtarrilaren 1 eta 6an izan ezik)
eta bestelako jaiegunetan.



Casa Pallotti Bainuetxea

El Molinar auz., 17
Karrantza Harana
Tel: 946 806 002
www.casavicentepallotti.com

Amalurra Spa

La Reneja auz., 35
Artzetales
Tel: 946 109 540
www.amalurra.com



Lanestosako Autokarabanen Gunea

Mirabueno, 6
Tel: 946 806 116 / 675 716 161
www.lanestosa.net

Bisita gidatuak eta ibilbideak

Leykatur 
Karrantza
Tel: 616 498 621
www.leykatur.com

Alboan
Balmaseda
Tel: 605 757 420
www.alboanserviciosturisticos.com

**Karrantza Gastronomika
Turistika**
Karrantza
Tel: 627 340 218

Jatetxeak

Amalurra Jatetxea   
La Reneja auz., 35
Artzentales
Tel: 946 109 540
www.amalurra.com

Casa Garras Jatetxea 
Concha auz., 6
Karrantza Harana
Tel: 946 806 280
www.casagarras.com

Aizko Pozalagua Jatetxea
Ranero auz.
Karrantza Harana
Tel: 685 76 12 23

Gailurretan Jatetxea  
Lanzasagudas auz., 17
Karrantza Harana
Tel: 946 806 667
www.gailurretan.com

Pallottienea Jatetxea 
El Molinar auz., 17
Karrantza Harana
Tel: 946 806 002
www.casavicentepallotti.com

Hotelak eta landetxeak

Amalurra Hotela  
La Reneja auz., 35 Artzentales
Tel. 946 109 540
www.amalurra.com

Amalurra Aterpetxea  
La Reneja auz., 35 Artzentales
Tel: 946 109 540
www.amalurra.com

Aingeru Landetxea
Los Lombanos auz.
Karrantza Harana
Tel: 946 107 180 - 675 118 632
www.casaruralaingeru.com

Gailurretan Landetxea 
Lanzasagudas auz., 17
Karrantza Harana
Tel: 946 806 667
www.gailurretan.com

Mendi Alai Landetxea
Cezura auz., 23
Karrantza Harana
Tel: 944 005 440 - 678 787 256
www.mendialai.net

Casa Pallotti Bainuetxea 
El Molinar auz., 17
Karrantza Harana
Tel: 946 806 002
www.casavicentepallotti.com

Arkitektura txundigarria



Indianoen etxeak

Enkarterriko gazte askok **Amerikak egin** zituzten XIX. mendean. Aberastu ziren haiek, indiano famatuak, eskualdera itzuli ziren urteen poderioz eta **sekulako etxeak** eraiki zituzten, bata beste baino handia eta deigarriagoa, lorategi zabalekin eta garairako oso berritzailea zen arkitektura batekin. Etxeek ikaragarriko **lorategiak** dituzte, sarritan palmondoz eta bestelako zuhaitz tropikalez beteta.

Gordexolan, Lanestosan eta **Karrantzan** nabarmentzen dira luxuzko eraikin hauek eta Amerikak egin zituzten talde txiki baten zoria islatzen dute. Liluratuta, beste auzoko asko haien urratsak jarraitzen saiatu ziren, baina ez zuten halako zorterik izan.



Turtziozeko baserria

Turtziozeko baserriak **Euskadiko eta Kantabriako ohizko etheen ezaugarriak nahasten ditu**: esaterako, aurrealdeko mutur batetik bestera zabaltzen diren balkoiak, askotan lorez gainezka agertzen direnak. XVIII. mendean agertu zen **Agüera ibaiaren** ibilguan zehar, artoaren komertzializazioak ekarritako oparotasunaren ondorioz. XX. mendearen hasieran eraikitzeari utzi zioten.

Turtziozen ez ezik, **Artzentalesen** eta **Villaverden** nabarmentzen da ere baserri mota hau, haran eta mendi hegaletan sakabanatuta. Beheko solairuan gortak ohi zeuden, lehenengoan etxebizitza eta azkenengoan **“sobrao”** delakoa, hauxe da, belarra, sagarrak eta bestelako produktuak lehortzeko kamarotea.



Bisita gidatuak

Muñatones Gaztelua

San Martin auz. (Muskiz)

Igandeetan ekainaren 15etik irailaren 14ra

Informazioa eta erreserbak

629 271 516



Erdi Aroko dorretxeak

XIV. eta XVI. mendeetan zehar eraikitako gotorlekuak dira. **Erdi Aroko leinu ahaltsuenak**, bi alderdi nagusitan banatuta (Oñaz eta Ganboa familia famatuak), **elkarren aurka borrokatu ziren** Bizkaiko ondasunak eta boterea lortzeko lehian. Bortitzak izan ziren borroka Enkarterrin bereziki.

Babesa eta etxebizitza eskaini ez ezik, bandokideen **izena eta ospearen adierazle ziren dorretxeak**. Leinuaren interesak defendatzeko puntu estrategikoetan kokatzen ziren. Erdi Aroko guduen amaierak oparotasun handia ekarri zuen eskualdera eta arkitektura erabat eraldatu zuen.

Muñatones Gaztelua

Muñatones gaztelua XIV eta XV. mendeetan zehar eraiki zuten, Erdi Aroko leinu guduen garaian. **Bizkaiko arkitektura-ondarearen adibide bikainenetako bat dugu**. Monumentu multzoa izendatu zuten horren ondorioz, eta lurralde historikoan gaztelutzat har daitekeen dorretxe bakarra da, kanpoko barrutia dela eta.

Gazteluak harreman estua dauka **Lope García de Salazar** historialari eta bandokidearekin. Berak, Muskizen jaioa, Bizkaiari buruzko lehenengo kronika idatzi zuen.

Ba al zenekien...?



...Enkarterriko mendebaldeko ohitura izan zela **zezen-plaza txikiak** baselizen ondoan eraikitzea, erromeriak girotzeko meza ostean? Hondarrak **Erdi Aroko guden ostean bizi izandako oparotasunaren adierazletako bat dira.**

Ezohiko arkitektura erlijioso honen adierazgarri nagusiak Artzentales, Karrantza, Sopena eta Turtziozen nabarmentzen dira batik bat.

...sustraitze handia izan zutela **sineskeria-kontuek** Zallan? Elezaharrak dio San Pedro de Zarikete baselizara bide batetik joanez eta bestetik itzuliz begizkoen aurkako babesa aurkitzen zutela jainkozaleek.

Sorginkeriak saihesteko erritoez milaka lagun erakarri zituzten Zallaraino mendeetan zehar. **San Pantaleon baselizako** jatorrizko kokalekuan Lucia de Aretxaga auzokoa sorgintzat jo eta erre zuen Inkisizioak.

Karrantzako **San Andres de Białñez** eliza berritzen ari zirela XVIII. mendeko erretaula bat desmuntatu behar izan zutela? Orduantxe, eta halaberrez, XV. mendeko **fresko izugarria** azaleratu zen horman.

Kalkulazina da Errenazimenduko pintura hauen balioa; izan ere, Euskadiko margolan baliotsuen artean nabarmentzen dira, adituen arabera.

Erreserba egitea beharrezkoa da eliza eta freskoa **bisitatzeko**. Margoak ez ezik, Amerikak egin zituzten eta Karrantzara aberastuta bueltatu ziren **indianoen** istorioak kontatuko dizkizugu bisitaldian.

Donejakue Bidea

Iparraldekoa eta Ahaztutako bidea



Donejakue bidea egin nahi duzu? Santiago de Compostelara doazen **bi ibilbide** igarotzen dira Enkarterritik: Iparraldeko bidea –ezagunenetariko bat– eta Ahaztutako edo Mendiko Bidea.

Iparraldeko bidea Portugaleten hasi eta **Ortuella, Abanto-Zierbena** eta **Muskizetik** igarotzen da Kobaron auzora iritsi arte. Aldapak ez dira handiak eta bidegorri bat dago ibilbidea bizikletaz egiteko. Zoragarriak dira Meatzaldea eta Kantauri itsasoko ikuspegiak. Pobeña auzoan **erromesentzako aterpetxea** dago, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta irailean zabaltzen duena.



Pobeñako Erromesentzako Aterpetxea (Muskiz)
Maiatzaren 1etik irailaren 30era

Ikastola Zaharra Aterpetxea (Balmaseda)
688 810 773 (erreserba beharrezkoa)

Ahaztutako bideak Enkarterriko historia eta kulturaren murgiltzeko aukera eskura jartzen digu, ohiko zirkuitu turistikoetatik kanpo. Bilbon hasi eta mendebalderantz abiatzen da **Alonsotegi, Güeñes, Zalla eta Balmasedan** zehar. Herri honetan Ikastola Zaharra **aterpetxea** dago. Bidea merkatari eta bidaiariz gainezka egon zen behinola, salgaiak Gaztelatik kostaldera zeramatzatela. Dorretxeak, luxuzko etxeak eta jauregiak aurkituko dituzu bidean zehar.



Informazio gehiago
www.elcaminooolvidado.com
www.turismo.euskadi.net

Zure planik onena



Erdi Aroko zubi eta kaleetan zehar ibili, sekulako **etxe eta jauregiak** bisitatu, **indianoen** istorio harrigarriak entzun eta **zaporerik** onenak dastatu. Enkarterriko oraina eta iragana deskubritzera gonbidatu nahi zaitugu eskualdea hobeto ezagutzen dutenen eskutik: gure turismo-gidariak. Naturaz, kulturaz eta gastronomiaz gozatzeko **esperientzia onenak** aurkeztuko dizkizugu.

Noble eta kapareen lurraldea izan zen Enkarterri hainbat mendez, kostaldea eta barnealdearen arteko derrigorrezko igarobidea.

Loriazko garai hartako ondareak eta izaerak **ezinbesteko jomuga** bihurtzen dute eskualdea **kultura** maite duten guztientzat.

Baina, oroz gain, **paradisua naturala** da Enkarterri. Lasaitasuna zein adrenalinarekin bila bazabiltza, Enkarterrin biak aurkituko dituzu. Eskualdea oinez, zaldi baten gainean edo 4x4 ibilgailuan ezagutu. Gure ibilbideak zure neurrira egokitzen dira sekulako esperientzia bizi dezazun Bizkaiko bazter txundigarri honetan.

Olatuak hartzen



Muskiz eta Zierbenan zehar hedatzen den **La Arena hondartzako** ur korrante bortitzek surfa egiteko leku gogokoenetako bat bihurtu dute hareatza hau azken urteotan. Munduko surflari onenak honaino etortzen dira olatuak hartzera. Surfa haiek bezala menperatu nahi baduzu, **La Arena Surf Center**-en jakin behar duzun guztia irakatsiko dizute.

Zure mailari egokitzen den ikastaro bat aukera ezazu eta **taularen gainean igo** zaitez.

La Arena Surf Center

La Arena auz., 21. Zierbena

Tel: 946 366 381 / 617 480 401

centroyescueladesurflaarena@gmail.com

www.laarenasurfcener.com

Zuhaitzen gainean



Pilatutako estresa zuhaitzen gainean askatu! Tibetar zubiak, tirolinak, lianak, abordatze sareak... **Sopuerta Abentura** zuhaitzetan abenturak izateko Euskadiko parkerik handiena da.

Zailtasun desberdineko **hamar zirkuitu** ditu, metro bat eta 21 metro bitartekoak. Lagunekin edo familiarekin etor zaitez. **Lau urtetik beherakoak** euren beharretara moldatutako zirkuitu berezi batean aritu ahal izango dira.

Sopuerta Abentura

San Cristobal auz. (San Viator ikastetxearen atzealdean). Sopuerta

Tel: 663 805 609

info@sopuerta-abentura.com

www.sopuerta-abentura.com

Karpin Fauna



Karrantza Haranan, naturaren itxurazko baretasunaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude. **Karpin Fauna basa faunaren** babes zentroko biztanleak dira.

Animalia hauek bortizkeria edo ezkutuko ehizaren biktimak dira, berezko habitatera itzultzeko ezgai. Hemen ingurune seguru batean bizitzeko aukera dute.

Karpin Fauna

Biáñez, 37. Karrantza Arana
Tel: 946 107 066 / 626 622 245
karpinabentura@karpinabentura.com
www.karpinabentura.com

Piraten lurraldea



Ongi etorri **piraten lurraldera**. Etxeko txikienak zuhaitzetatik eta itsasargi batetik igoko dira, itsaslapurren sareetatik ihes egingo dute eta **egundoko txirristetatik** jausiko dira. Bitartean, helduek umeez bezain ondo pasako dute **kortsarioen tabernan**.

Bizkaia Park Abentura Güeñesen dago, Bilbotik 15 minututara, sorpresaz beteriko esparru itxian. **Urte bat eta 13 urte bitarteko** haurrentzat zuzenduta dago.

Bizkaia Park Abentura

Arangoiti, 1 - 1D Pabilioia - 1H. Güeñes
Tel: 946 859 761 / 688 603 814
info@bizkaiaparkabentura.com
www.bizkaiaparkabentura.com

Ura osasuna da

Termak eta spa



Enkarterriko **ur sendagarrietan** murgil zaitez eta eguneroko kezkak eta ardurak bazter itzazu **ingurune hunkigarrien artean**. Estresaren aurkako esperientzia osoa proposatzen dizugu: bainu turkiarrak, saunak, jacuzziak, ur hotzeko ontziak, bi tenperaturetako dutxak eta askoz gehiago.

El Molinar Termak

Molinar auz., 17. Karrantza

Tel: 946 806 002

inforeservas@casavicentepallotti.com

www.casavicentepallotti.com

Spa Amalurra

La Reneja auz., 35. Artzentaless

Tel: 946 109 540

amalurra@amalurra.com

www.amalurra.com



Balmaseda

Bizkaiko lehenengo hiribildua



Balmaseda Bizkaian sortutako **lehenengo hiribildua** da (1199), **Kadagua** ibaiak bustitzen duen haizpitarte estu batean kokatuta. Gure turismo-gidariek udalerriko kale harriztatuetan zehar eramango zaituzte, gaur egungo eta iraganeko sekretuak kontatzen dizkizuten bitartean. Zubi zaharrak, elizak, jauregiak eta luxuzko etxeak Erdi Aroko hiri xarmagarrian.

Alboan

Tel: 605 757 420 | alboanjgb@gmail.com

www.alboanserviciosturisticos.com

Leykatur

Tel: 616 498 621 | info@leykatur.com

www.leykatur.com

Meatzarien herrixka



Bizkaiko industriaren erraietan barnera zaitez La Arboledako (Trapagaran) **antzinako meatzarien etxean**, erabat berritua. Herrixkak **Bizkaia eta Euskadiko egungo onura** ekarri zuten meatzarien eta euren familien egunerokotasuna ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa

Tel: 946 363 682

informacion@meatzaldea.eus

www.meatzaldea.eus

Indianoen ametsa



Bisitaldi honetan aspaldi batean **Amerikak egin zituzten** eta Karrantzara aberastuta bueltatu ziren auzokideen istorioak kontatuko dizkizugu. Luxuzko etxeak indianoek eskualdean utzitako ondare nagusia da, baina ez bakarra.

Dirutza nola egin zuten eta bere eguneroko bizitzaren gertaera zirrargarrienak kontatuko dizkizugu. Karrantzako Kontxa auzoko etxe nagusiak ezagutuko dituzu **sorpresaz eta sekretuz** beteriko bisita honetan.

Leykatur

Tel: 616 498 621
info@leykatur.com
www.leykatur.com

Historiaurrea eta sorginkeria



Natura, kultura ala herri kontakizunak? Ez duzu aukeratu beharrik. Den-denaz gozatuko duzu txango bakar batean, Kadagua ibaiaren arroan zehar. Bolunburuko (**Zalla**) kastoraino igoko zara eta Burdin Aroko gotortutako herrixka bat ezagutuko duzu ezusteko ibilbide batean. Bisitaldia baso betean amaituko da, Bizkaiko **lehenengo akelarreak** egin ziren tokian.

Alboan

Tel: 605 757 420
alboanjgb@gmail.com
www.alboanserviciosturisticos.com

Malta eta lupulua



Benetako **artisansu garagardoaren** sekretuak ezagutu nahi dituzu? Maiken Brewery eta Laugar-en instalazioetan garagardo hauen elaboratze prozesua, historia eta filosofiaren berri emango dizugu. **Limitarik gabeko unibertso** batean murgildu!

Maiken Brewery

Virgen de Gracia, 27. Balmaseda

Tel: 637 803 295

info@maikenbrewery.com

www.maikenbrewery.com

Laugar Brewery

Zubiete auz., 42. Gordexola

Tel: 946 798 292 | 666 825 752

taproom@laugarbrewery.com

www.laugarbrewery.com

Kafe-dastatzailea



Artisansu produktuak modan daude. Kafea profesional bat bezala dastatzen ikasi.

Bihiak nondik datozen, **txigorketa** nola egiten den eta **espezialitate kafearen** sekretuak kontatuko dizkizugu.

Mundu osoko barietateak dastatzeko aukera izango duzu, eta oparitxo berezi bat eramango duzu etxera. Edari honi **benetako urre beltza** zergatik deitu izan dioten ulertuko duzu.

Kaitxo

Encartaciones etorbidea, 72. Balmaseda

Tel: 657 034 266 / 946 800 679

kaitxo2017@gmail.com

www.kaitxo.com

Zure indaba eltzea prestatu



Balmasedako **Pintxo i Blanco** tabernan gure sukaldaritzaren platerrik sendoena prestatzen irakatsiko dizugu, trenbideko langileek erabiltzen duten jatorrizko egosketa teknikaz baliatu. **Indaba eltzeaz** ari gara, noski.

Saiheskiak, urdaiak, txorizoak, odolkiak... **Mimoz** eta **pazientziak** kozinatuko duzu eltzea, egosketa hainbat ordutan zehar luzatuko baita ikatzeko su txikian. Nolanahi ere, pena mereziko du itxaronaldiak emaitza dastatuz gero.

Pintxo i Blanco

Martín Mendia, 5. Balmaseda
Tel: 626 166 665 / 637 803 516
catering@pintxoiblanco.com
www.pintxoiblanco.com

Larru tailerra



Larrua beti modan dago eta bat dator **dotoretasunarekin**. Aretxederra tailerrean eskulangintza-piezak egingo dituzu ondutako larru erabat naturalarekin. **Kalitatezko produktu eskusiboa** eramango duzu etxera, beste inon aurkituko ez dituzun piezak.

Sopuertan egiten dan tailerra, **lasaitasuna** eta **inspirazioa** dakartzan mendiz inguratutako tailer batean.

Aretxederra

B° Santa María, 16. Sopuerta
Tel: 639 48 26 52
aretxederra@aretxederra.com
www.aretxederra.com

Enkarterri Road Experience



Pedalei eragin limiterik **gabe ezinezko bihurtunetan** zehar. Ezin hobekak dira Enkarterriko **errepideak** naturak eskaintzen dizun askatasunaz bi gurgilen gainean gozatzeko. Eskualdea bidez eta zidorrez josita dago **asfaltozaleek** sekulako esperientzia bizi dezaten Euskadiko bazterrik txundigarriean.

Informazio gehiago: www.enkarterribike.com edo **946 80 29 76**



- **Egunak:** 6
- **Gauak:** 5
- **Etapak:** 5
- **Distantzia:** 444 km
- **Desberdintasun tartea:** 6.470 m



Enkarterri MTB Experience




Ibilbide zirkular hau **Armañongo Natur Parkean**, **Ordunte** eta **Trianoko Mendietan** eta Kantauri itsasoko labarretan barruratzen da. Mendi malkartsuak, tontor xebeak, baso amaigabeak, baserriz jositate haranak, Erdi Aroko hiribilduak eta imajina ezin ditzakezun panoramikak aurkituko dituzu zure mendi bizikletan. **Hiru, lau edo bost etapetan eskuragarri.**

Informazio gehiago: www.enkarterribike.com
edo **946 80 29 76**



- **Egunak:** 4, 5 edo 6
- **Gauak:** 3, 4 edo 5
- **Etapak:** 3, 4 edo 5
- **Distantzia:** 197, 226 edo 239 km
- **Desberdintasun tartea:** 5.000, 5.700 edo 6.200 m



MTB familiarekin



Kadaguako ibilbidea, Bizkaiko **lehenengo hiribildua** eta Burdin Mendien Bide Berdea deskubritu bi gurpilen gainean. Ibilbidea etxeko txikienentzat pentsatuta dago, **etapa eskuragarriekin** eta familia osorako jarduerekin. Antzinako meatze-trenbidearen trazadura jarraitzen du ibilbideak mendietatik itsasalderaino.

Informazio gehiago: www.enkarterribike.com
edo 946 80 29 76



- **Egunak:** 2 edo 3
- **Gauak:** 1 edo 2
- **Etapak:** 1 edo 2
- **Distantzia:** 21 edo 49 km
- **Desberdintasun tartea:** 130 edo 420 m




Mahastitik edalontzira



Enkarterriko upategiak bisitatu eta **txakolinaren sekretuak** deskubritu. Eskualdeko enologoaren eskutik lurraldeko ardogintza eta tradizio enologikoa ezagutuko dituzu, hala nola txakolinaren elaborazio-prozesua. **Zentzuak esnatu** (begiak, sudurra eta dastamena) ardo honen ñabardura guztiez jabetzeko!

Hainbat barietate dastatzeko eta mahastien artean ibiltzeko aukera izango duzu. Izan ere, Enkarterrin dago Euskadiko **txakolin-mahastirik handiena**, eta ez kasualitatez.

Galdameseko Upategiak 
Concejuelo auz., s/n. Galdames
Tel: 627 992 063
info@vinasulibarria.com
www.vinasulibarria.com

Virgen de Lorea Upategiak 
Otxaran auz. Zalla
Tel: 629 445 620
virgendelorea@spankor.com
www.bodegasvirgendelorea.com

Markoleta Txakolina
Markoleta auz., 10. La Quadra, Güeñes
Tel: 609 018 820
markoletabodega@gmail.com

Txabarri Txakolina 
Muñeran auz., 17. Aranguren, Zalla
Tel: 658 728 865
itxasa@gmail.com
www.txakolixabarri.com

Armañongo Parke Naturala



Ranero Mendia (Karrantza)

Enkarterriko harribitxietako bat da Armañon. Karrantza eta Turtziozoko udalerrien artean zabaltzen den parke natural honek **paisaia karstikoak** eta behi eta ardiak bazkaleku diren belardiak ditu ezaugarri. Armañongo mikroklima bereziari esker, **pagadi** hostotsuak eta Mediterraneoeko berezko **artadi** bat hazi dira parkean zehar.

Armañongo Parke Naturalak inguruko haranetako panoramika bikainak eskaintzen dizkigu. Bere gailur eta basoen artean **ehundaka leize** zabaltzen dira. Askok itzelezko sakontasuna dute eta espeleologoak baino ezin dira barneratu lurzoruan. Hemen dago, esaterako, **La Torca del**

Carlista, Europako leizerik handiena. Ezagunena, ordea, **Pozalagua kobazuloa** da, 2013an **Guía Repsol**-eko txokorik onena hautatutakoa.

Naturaren zirrara beste inon ez bezala azaltzen da hemen. Izan ere, ikuskizun bakarra ezkututzen du haitzuloak: forma imajinaezinak hartzen dituzten **estalaktita eszentrikoen** pilaketarik handiena. Formazio hauek grabitate-legeei aurre egiten diete itxuraz eta mosaiko liluragarria osatzen dute.

Lurpeko multzoa harrigarria da. Ibilbideak zutabe, kolada eta aintziren artean sigi-saga egiten du estalaktita eszentrikoen artean. **Izugarrizko koralezko uharria** osatzen dute



itxuraz estalaktitek, Lurraren erraietan zehar zabaltzen den baso modukoa. Pasabidearen amaieran egokitutako behatokitik Pozalaguako **handitasunaz eta edertasunaz** neurritz gabe gozatu ahal izango dugu.

Parketxeak, kobazuloaren aurrealdean kokatuta, inguru eta flora eta faunari buruzko informazioa, erakusketak eta erreproduzioak ditu. 854 metro altuerako **Armañon Mendia** parkeko gailur garaiena da. Eskualdeko baretasun eta edertasunaren adierazle bikaina dugu. Tontorrak itxura biribila du eta elurrez estalita agertzen da sarritan neguan.



Pozalagua Kobazuloa



Ranero auz.

Karrantza Harana

Tel: 649 811 673

Sarreraren salmenta online

www.cuevadepozalagua.eus

Armañongo Parke Naturala. Parketxea

Ranero auz. (kobazuloaren aurrealdean)

Karrantza Harana

Tel: 946 560 079

Armañongo Parke Naturala.

Interpretazio Zentroa

Lehendakari Agirre Etorbidea, 59

Turtzioz

Ordunteko Mendiak



Ordunteko Mendiak 20 kilometrotan zehar hedatzen dira **Karrantzako** hegoaldetik, Enkarterriko **muga** naturaletako bat osatuz. **Zalama Mendia** mendilerroko gailurrik garaiena da (eta Bizkaiko bigarrena, 1.366 metroekin), baina 1.000 metrotik gora duten beste hainbat gailur nabarmentzen dira ere.

Joritasun itzelezko gunea izanik, **Natura 2000 Europako sare ekologikoko** parte da Ordunte. Pagoz eta haritzek estalitako baso-masa handia osatzen dute mendiek, eta landare-espezie bereizgarri asko dituzte.

Arriskuan dauden hainbat animalia hemen bizi dira, hala nola aztore-arranoak edo saiak.

Mendilerroko gailurrik garaiena ez bada ere, **Kolitza** (870 metro) dugu famatuena zalantzarik gabe. Bizkaiaiko bost **deiadar mendietako** bat da, tontorrean sua piztu eta turuta jotzen baitzen **Bizkaiko Batzar Nagusietara** deitzeko.

Gizakiek eta mendiek bat egin dute Enkarterrin historian zehar. Kolitzako gailurrean **San Roke eliza** erromanikoa altxatzen da. Baseliza honetan Balmasedako **Pasio Bizidunaren jatorriak**



Sobrepeñako behatokia (Karrantza)

aurki ditzakegu, herritarrak mendira igotzen ohi baitziren prozesioan izurritearen aurka erregutzeko. Inguruetako haranen 360 graduko ikuspegi panoramikoa eskaintzen digu Kolutzak.

Balmasedako Udaletxearen atzealdetik irteten den **zidor** batetik igo dezakegu Kolutza mendiraino. Ibilbideak **6 kilometrotan zehar** gora egiten du, baserri, txakolin-mahasti eta pagoen artean.



Armañon eta Ordunte Mendietako Interpretazio Zentroa

Ranero auz. (kobazuloaren aurrealdean)
Karrantza Harana
Tel: 946 560 079

Trianoko Mendiak



Burdina eta Enkarterri bat etorri diran historian zehar, antzina-antzinatik. **Erromatarrek** jadanik ezagutzen zituzten **Trianoko Mendien meatze-aberastasunak**, eta errementarien trebetasuna oso preziatua izan zen Erdi Aroan. Nolanahi ere, mineral-hobien ustiapena ez zen XIX. mendera arte hasi.

Aire-zabaleko meategiek oparotasun handia ekarri bazuten ere, hainbat auzo desagerrarazi eta eskualdeko paisaiak erabat **eraldatu** zituzten, **ezagutezin** bihurtu arte. Azkeneko meategia 1993an itxi zuten, baina zutik mantentzen dira oraindik ere garaiko eraikinak eta hainbat meatzarien etxe. Eskualdeak

ingurumena **bere onera ekartzeari** ekin dio azken urteotan, betiere ondare industrialak mantendu eta suspertzeko helburuarekin.

Ortuellan dagoen **Meatzaldea - Peñas Negras Ekoetxeak** industriak denboran zehar paisaietan eragindako aldaketak dokumentatu ditu, ingurumenari buruzko **sentsibilizazioa** handitzeko asmoz. Meatzaritzak moldatutako ilargi-panoramikaz gozatzeko behatoki zoragarria da.

Antzinako meatze-trenbidearen lekuan **Burdin Mendien Bide Berdea** –Bizkaiko luzeena– aurkitzen dugu gaur egun, eskualdearen historia eta ondarea 42 kilometrotan zehar islatzen dituen.



Barbadun ibaiaren artoa jarraitzen du Burdin Mendien Bide Berdeak. Anitza da fauna **Natura 2000 sareko** parte den ibilbide honetan: bisoi europarra, izokina eta sai zuria bezalako espezieak nabarmentzen dira, batik bat. Honako herri hauek zeharkatzen ditu Bide Berdeak: Traslaviña (Artzentaletas), Sopena, Galdames, Muskiz, Abanto-Zierbena eta Zierbena.



Meatzaldea – Peñas Negras Ekoetxea
La Arboleda – Muskiz mendi errepidea, km 1,16.
Ortuella
Tel: 946 338 097

Enkarterri dastatu



Jatea artea izan daiteke Enkarterrin. Eskualdeko jangaiak anitzak eta kalitatezkoak dira, sariak irabazi dituzte gure mugetatik kanpo eta, pixkanaka, **jatetxe onenetako kartetan** zabaltzen ari dira. Hemen, ahosabaia ez ezik, bestelako zentzumenak liluratuko dituzu ere, XVI. mendeko komentuetan zein ehun urtetik gorako baserrietan.

Eskualdeko gastronomia ezagutzeko abiapuntu tinkoa dugu Balmasedako indaba eltzea. Leongo ikatz-meategiak eta Bilbo arteko ibilbide neketsua egiten zuen **La Robla trenbideko** langileek perfektionatu zuten errezeta. Makinaren lurrunaz eta triki-takaz baliatuz, gorputza berotu

eta **indarrak berreskuratzeko** hain aproposa den plater hau prestatzen zuten suginek.

Eltzekoa ikatzezko su txikian egiten den bitartean, itxaronaldia Enkarterriko **bermuta** edo **artisansu garagardoekin** alaitzeko aukera izango dugu. Hala ere, nagusitza **txakolinarena** da, aspalditik ekoiztuta izan dena eskualdean hazitako mahatsekin.

Enkarterriko sukaldaritzak gustu ona eta dibertsitatea sustatzen dituen **Slow Food** elkarte gastronomikoaren esker ona irabazi du azken urteotan. **Zallako tipula morea** adibide aparta



dugu. Ezaugarri ezin hobeko (gozoa, ez oso mina eta mamitsua) erraboil hau oso preziatua da eskualdeko saltsa ezagunenak prestatzeko.

Aipagarriak dira eskualdeko **esnekiak**, European euren kalitateagatik sarituak izan direnak. Eskualdeko ardi latzek eguneroko plazer txiki asko ematen dizkigute: gurinak, gaztak eta beste asko. Bestalde, baserrietako **errezeta tradizionalak** belaunaldiz belaunaldi gorde ditu Enkarterrik, gure ahosabaien gozamenerako. **Kaitxo-ko** txokolate zuria, esaterako, munduko onenen artean aukeratu dute.

Kantauri Itsasora zabaltzen da eskualdea Muskiz eta Zierbenan. Zierbenako portuan sekulako **arrain eta itsaskiak** dastatzeko aukera dugu, **txingarretan erreak**. **Hegaluzeak** protagonismo berezia du eta mila erataria prestatzen dute bi herrietako marinel-giroko jatetxeek.

Laburbilduz, sekulako eskaintza gastronomikoa osatzen dute lurraldeko tradizioek, azken joerek eta zapore bereizgarrienek. On egin!



Gure produktuak online

www.visitenkarterri.com/eu/produktuak



Ogia eta gozogintza

Janariari ezinbesteko kutsua ematen dion **osagarri hori** da ogia. Betiko erara egiten dugu Enkarterrin, eskualdeko **gozokiak, pastak** eta **postreak** bezala.

Crosta

San Pantaleón auz., 2 | Zalla
Tel: 946 390 447

Matxako

Concha auz., 19 | Karrantza
Tel: 946 806 110
www.matxako.com



Horno de Leña Saratxaga

Humaran auz., 4 | Galdames
Tel: 660 696 511
www.pancaserosaratxaga.es



Kafea eta txokolatea

Enkarterrin benetako **urre beltzaren** maisuak gara. Kafe eta txokolate **bihi onenak** aukeratzen ditugu ahogozagarri apartak prestatzeko.

Kaitxo

Encartaciones Etorbidea, 72 | Balmaseda
Tel: 657 034 266 / 946 800 679
www.kaitxo.com



Haragia

Abeltzaintzak garrantzi handia du Enkarterrin, eskualdeko ekonomiaren euskarrietako bat baita. Gure **txahal, txerri edo arkume** haragiak dastatu! Errepikatu nahi izango duzu.

Arte Carne

Fernández Terreros Harategiak
San Juan auz., 17 | Muskiz
Tel: 946 706 227
www.artecarne.com



Eztia

Eskualdeko **txilar** eta **eukalipto eztiak** mendi faunaren **aromak** eta **ezaugarri naturalak** mantentzen dituzte. Bakarrik edo esnearekin hartu!

Herriko Eztia

La Toba auz., 46
Artzetales
Tel: 608 318 059



Tipula morea

Zallako tipula moreak ezaugarri ezin hobekak ditu (**gozoa, ez oso mina eta mamitsua**) eta Slow Food elkarte gastronomikoaren esker ona irabazi du. Aparta da ongailu bezala.

Ana Mari Llaguno

Somavalle, 4 | Otxaran, Zalla
Tel: 619 471 700

ArtzetalesEKO

Górgolas auz., 1 | Artzetales
Tel: 696 942 176
www.artzetaleseko.com



Baserriko arrautzak

Gure baserrietako **arrautza** eta **kapoiak** dasta itzazu. Euskal oiloak emandakoak dira eta zapore aparta dute. **Arrautza-frijitu** eta patata-**tortilla** bikainak egingo dituzu.

Emusan

Goikuria auz., 5
Sodupe
Tel: 609 027 880



Garagardoak

Enkarterri maiteko dute garagardozaileek neurriz gabe, eskualdean **artisanu garagardo** apartak eta bereizgarriak ekoizten baitira.

Laugar Brewery

Zubiete auz., 42
Isasi Industrialdea, 9. nabea | Gordexola
Tel: 946 798 292 | 666 825 752
www.laugarbrewery.com

Maiken Brewery

Virgen de Gracia, 27 | Balmaseda
Tel: 637 803 295
www.maikenbrewery.com



Bermuta

Txurrut –hauxe da, **zurrupada**– Enkarterrin hazitako **hondarribi zuri mahatsekin** egindako lehenengo **bermuta** dugu. Barietate guztiak dastatu!

Vegame · Txurrut Vermout

Carral auz., 55
Sopuerta
Tel: 946 104 869
www.txurrutvermut.com



Ardi gazta

Hainbat barietetetako ardi gaztak aurkituko dituzu Enkarterrin: freskoak, erdionduak eta onduak, **zein baino zein gozoagoa**.

Isusi Anaiak

Buniete Baserría | Sodupe
Tel: 626 351 164

Ulibarri Artzaiak

B° Isuskiza Handia, 1 | Gordexola
Tel: 665 725 735



Hestebeteak

Txorizoa, hirugiharra, zezina, solomoa, tripaki-platerrak, txerri-hankak Bizkaiko erara... **Enkarterriko hestebeteen** aukera zabala lortu.

Lombera de Carranza

Ambasaguas auz., 97 | Karrantza
Tel: 946 107 079
www.lomberadecarranza.com



Esnekiak

Eskualdean bizi diren behiek kalitate handiko esnea ematen dute, **yogurrak, gazta, gurina eta gatzatuak** egiteko erabiltzen dena.

Láctea de Balmaseda

El Páramo Industrialdea
Partzela A, 8 | Balmaseda
Tel: 946 802 864
lactebal.wordpress.com

Bizkaia Esnea

Boiano auz., z/g | Karrantza
Tel: 946 107 051
www.bizkaiaesnea.com

Mahastien artean



Mahasti eta txakolinaren lurraldea da Enkarterri. Fruta-gustuko ardo zuri gazte eta garratz honek eskualdeko egun eta gauak alaitu ditu XIII. mendetik. Txakolina eskualdeko produktu tradizional eta bereizgarrietako bat da. Izan ere, Euskadiko **txakolin-mahastirik handiena Zallan** dago, eta ez kasualitatez.

Enkarterriko klimak barnealdeko eta kostaldeko ezaugarriak nahasten ditu, txakolinari **aparteko estruktura** eta bestelako ezaugarri organoleptiko bereziak emanez. Gure txakolinek kritika gero eta gorazarrezkoak jaso dituzte eta munduko onenen artean nabarmendu dira azken urteotan **Bacchus sarietan**.

Enkarterriko upategiak



Virgen de Lorea

Lorea auz., z/g | Otxaran-Zalla

Tel: 629 455 620

www.bodegasvirgendelorea.com



Txabarri Txakolina

Muñeran auz., 17 | Aranguren-Zalla

Tel: 658 728 865

www.txakolitxabarri.com

Egia Enea Txakolina

Castillo La Piedra, z/g

Balmaseda

Tel: 661 922 101

Ulibarri Artzaiak Txakolina

Isuskiza Handia auz., 1 | Gordexola

Tel: 665 725 735



Galdameseko Upategiak

El Bentorro, 4 | Galdames

Tel: 627 992 063

www.vinasulibarria.com

Txakoli Markoleta

Markoleta auz., 10 | La Quadra - Güeñes

Tel: 609 018 820

Txurru Txakolina

Carral auz., 55 | Sopuerta

Tel: 946 104 869

www.txurruvermut.com

Autokarabana guneak

Lanestosa, Zalla, Balmaseda



Lanestosa

Mirabueno, 6

Tel: 946 806 116 / 675 716 161

www.lanestosa.net

Zalla

Gallardi auz.

Tel: 946 390 001

www.zalla.eus

Balmaseda

Las Laceras auz.

Tel: 946 802 976

www.lanestosa.eus

Hornikuntzak:

Edateko ura

Dutxak

Bainugela

Korronte-hartunea

Ur beltzen eta grisen hustuketa

Umeentzako gunea

Picnic gunea

Igeritokiak (udan)

22 plaza

Hornikuntzak:

Edateko ura

Ur beltzen eta

grisen hustuketa

4 plaza

Hornikuntzak:

Edateko ura

Korronte-hartunea

Ur beltzen eta grisen hustuketa

14 plaza

Jatetxeak



Pintxoak

Euskadiko **gosegarri** ezagunenaren eskaintza zabala aurkituko duzu Enkarterrin. **Mota guztietako** pintxoak ditugu: tradizionalak, abangoardiakoak, begetarianoak... Gure edaritegi eta jatetxeetako barrak **pintxoz gainezka** daude egun osoan zehar, eskualdeko bazter guztietan.

Jateko ordua

Pintxoak, betiko errezetak, haragia eta arrainak txingarretan, baratzeko barazkiak, txuletoiak eta baita sukaldaritza berritzailea ere elkartzen ditu Enkarterrik. Gure gastronomiaren **aniztasunak**, **zaporeek** eta **usainek** harrituko zaituzte. On egin!

Potez pote

Lagunarteko denbora-pasa ez ezik, eskualdeko **erritu-sozial esanguratsuena** dugu poteoa. Enkarterrin potez pote joateko taberna eta pub ugari aurkituko dituzu. Eguna lagunen artean eta barrezka amaitzeko ohitura dibertigarria da, giro alaian eta **musikaren** soinura.



Jatetxez, edaritegiz eta beste hainbat saltokiz osatutako **bikaintasun sarea da Euskadi Gastronomika**, produktua eta bezeroekiko kalitatea eta konpromisoa lokarri dituena. Bere xede nagusia herrialdeko **nortasun gastronomikoa** eta honen **kalitatea** bermatzea da, betiere turismoari begira.



Albokak Jatetxea  
Bilbao – Balmaseda Errepidea
(10. Irteera) Arbuio 11
Alonsotegi
944 982 370
www.albokakjattetxea.com

Amalurra Jatetxea   
La Reneja auz., 35
Artzentales
946 109 540
www.amalurra.com

Aretxaga Jatetxea 
Aretxaga auz., 16
Zalla
946 390 679

Basilio Jatetxea
El Crucero auz. | Sopuerta
946 504 129

Batzoki Zierbena Jatetxea 
El Puerto auz., 19-21
Zierbena
946 366 374
www.hotelkaiarural.com

Gailurretan Jatetxea  
Lanzasagudas auz., 17
Karrantza
946 806 667
www.gailurretan.com


Garras Jatetxea 
Concha auz., 6 | Karrantza
946 806 280
www.casagarras.com


Gloria Jatetxea 
El Puerto auz., 25 | Zierbena
946 365 013
www.restaurantegloria.net

Komentu Maitea Jatetxea 
Sandamendi auz., 41
Gordexola
946 798 082
www.komentumaitea.com

Mendiondo Jatetxea 
Revilla auz., 1 | Sopuerta
946 504 452
www.mendiondo.com

Mugarri Jatetxea
Pobeña Plaza, z/g | Muskiz
617 038 292
www.restaurantemugarri.com

Pintxo i Blanco Jatetxea 
Martín Mendia, 5 | Balmaseda
626 166 665
www.pintxoiblanco.com

Pallottienea Jatetxea 
El Molinar auz., 17 | Karrantza
946 806 002
www.casavicentepallotti.com

San Roque Jatetxea 
Campo de las Monjas, 2
Balmaseda
946 102 268
www.hotelsanroque.es

Arcos de Quejana Restaurant  
Beotegi Errepidea, z/g
Quejana - Araba
945 399 320
www.arcosdequejana.com

Batiz Casa Roble Jatetxea
Mercadillo auz., 52
Sopuerta
Tel: 946 50 47 34

Aizko Pozalagua Jatetxea
Ranero auz.
Karrantza Harana
Tel: 685 76 12 23

Hotel eta landetxeak



Amalurra Hotel* eta Aterpetxea

La Reneja auz., 35

Artzentales

946 109 540

www.amalurra.com

Erregistro zenbakia: HBI01146



Komentu Maitea Hotela ****

Sandamendi auz., 41

Gordexola

946 798 082

www.komentumaitea.com

Erregistro zenbakia: HBI01231



San Roque Komentu Hotel**

Campo de Las Monjas, 2.

Balmaseda

946 102 268

www.puntuanhoteles.com

Erregistro zenbakia: HBI01073



Ibarra Hotel**

Llantada auz., 11

Zalla

618 789 720

www.hotelibarrazalla.com

Erregistro zenbakia: HBI01134



Wi-Fi



Telebista
logelan



Aparcalekua



Edaritegia



Lorategia



Egokituta



Egongela



Maskotak



Jatetxea



Isasi Hotela*

Zubiete auz., 53

Gordexola

946 798 224

www.hotelisasi.com

Erregistro zenbakia: HBI01207



Kaia Hotela**

El Puerto auz.

Zierbena

946 366 374

www.hotelkaiarural.com

Erregistro zenbakia: HBI01177



Ortuella Hotela**

Granada Poligonoa, 1

N-634, Trapagaran eta Ortuella artean. Ortuella

946 353 204

www.hotelortuella.com

Erregistro zenbakia: HBI01212



Las Palmeras Hotela*

Fuente Vieja Etorbidea, 9

Muskiz

946 706 392 - 647 852 800

www.laspalmerashotelrural.com

Erregistro zenbakia: HBI01215



Portxea
edantegiarekin



Jolastokia



Etxe osoaren
alokairua



Spa



Igeritokia



Kalitate
turistikoa



Konpromisoa
kalitate turistikoarekin



Ekoetiketa



Arcos de Quejana Hotela*

Beotegi Errepidea, z/g

Kexaa (Araba)

945 399 320

www.arcosdequejana.com

Erregistro zenbakia: HVI0035



Pikatzaenea Apartamentuak

Cañedo auz., 8 - Bezi

Sopuerta

617 471 936

www.pikatzaenea.com

Erregistro zenbakia: TBI00007



Mugarri Apartamentuak

Pobeña Plaza, z/g.

Muskiz

946 707 799 - 617 038 292

www.apartamentosmugarri.com

Erregistro zenbakia: TBI00004



Bizkar Bare Apartamentuak

El Acebal, 7 - Arce auz.

Sopuerta

658 039 393

www.bizkar-bare.com

Erregistro zenbakia: TBI00043



Wi-Fi



Telebista
logelan



Aparkalekua



Edaritegia



Lorategia



Egokituta



Egongela



Maskotak



Jatetxea



Casa Pallotti Bainuetxea*

El Molinar auz., 17

Karrantza Harana

946 806 002

www.casavicentepallotti.com

Erregistro zenbakia: HBI01076



Mendi Alai Landetxea

Cezura auz., 23

Karrantza Harana

944 005 440 - 678 787 256

www.mendialai.net

Erregistro zenbakia: XBI00099



Aingeru Landetxea


Los Lombanos auz.

Karrantza Harana

946 107 180 - 675 118 632

www.casaruralaingeru.com

Erregistro zenbakia: KBI00095



Gailurretan Landetxea

Lanzasagudas auz., 17

Karrantza Harana

946 806 667

www.gailurretan.com

Erregistro zenbakia: XBI00046



Portxea
edartegiarekin



Jolastokia



Etxe osoaren
alokairua



Spa



Igeritokia



Kalitate
turistikoa



Konpromisoa
kalitate turistikoarekin



Ekoetiketa



Baserri Taboada

Allende auz., 4 - Iratzagorria
Gordexola

944 499 231 - 675 715 298

Erregistro zenbakia: XBI00014



Deskontu kupoiak

Enkarterrin gaua eman eta planik onenez prezio berezietan gozatu!

Zure
liburuxka
eskatu gure
hoteletan

POZALAGUA FLASHBACK

**Ilunpetan barneratu kobazuloan eta
bere aurkitzaileek sentitu zuten
zirrara bizi**



Larunbatetan 11:30ean

Sarrerak: www.cuevadepozalagua.eus

Enkarterriko agenda



Balmasedako Pasio Biziduna

Balmasedako kaleak antzektoki bihurtzen dira **Aste Santuan**. Bizkaiko lehenengo hiribilduko Pasio Biziduna eskualdeko jarduera beteranoena da eta ospe handiena duena gure mugetatik kanpo. Sinetsi ala ez, ezinbesteko ekitaldi artistikoa dugu, **Kristoren gurutziltzaketaren** errealismoari eta herritarren parte-hartze masiboari esker.

Ostegun Santuan hasten da antzezpena. Azken afarian Jesusek amaiera hurbil dagoela esaten die bere diszipuluei, haietariko batek Kristo saldu

omen baitu. Gau berean Olibetako mendian atxilotu eta Kaifasen aurrera eramango dute.

Pilatosen aurreko epaiketak **Ostiral Santua** abian jartzen du. **Kristoren Nekaldiak** aurrera egiten duen bitartean, Pilatok bere burua hiltzen du. Antzezpena Jesusen heriotzarekin amaitzen da, Kalbario mendian.



Informazio gehiago

www.viacrucisbalmaseda.com

OTSAILA

Txakurkrosa (Zierbena)

Apuko Igoera (Zaramillo, Güeñes)

MARTXOA

Txerriki Azoka (Sopuerta)

San Jose Azoka (Güeñes)

APIRILA

Balmasedako Pasio Biziduna

Ondo Bizi Arte Egonaldia (Karrantza)

Dani Txapelketa (Sodupe, Güeñes)

Enkarterri Extreme Trails (Zaramillo, Güeñes)

Lore Azoka (Güeñes)

Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka (Ortuella)

MAIATZA

Maiatzaren 1eko Azoka (Turtzioz)

Balmasedako Erdi Aroko Azoka

Ascent to Mount Koltiza (Balmaseda)

Eguzki Fest (Muskiz)

Ardo Eguna (Zalla)

EKAINA

Galdames Mendi Bira

Andra Mari Azoka (Alonsotegi)

Enkarterri Fest (Zalla)

San Isidro Legoa (Karrantza)

Ortuella Green Series – Las Balsas XC (Ortuella)

Galipa Mendi Bira (Zierbena)

Koltiza Igoera (Balmaseda)

Retrobike Enkarterri (Balmaseda)

Surf Film Festival (Zierbena)

UZTAILA

Gordexola Xtreme (Gordexola)

Pobeña 1890 (Muskiz)

Bizkaiko Itzulua (Balmaseda)

La Hoya Azoka (Valle de Villaverde, Kantabria)

ABUZTUA

Arku Loretsuen Danza (Lanestosa)

Pozalagua Festival (Karrantza)

Estropraden Petronor Bandera (Zierbena)

IRAILA

El Socorroko Erromeria (Pobeña, Muskiz)

Ortuella Off Road (Ortuella)

Txakurren Nazioarteko Lehiaketa (Muskiz)

Paperezko Soinekoen Nazioarteko Lehiaketa (Güeñes)

Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka (Muskiz)

El Sucesoko Erromeria (Karrantza)

Ehiza, Arrantza eta Natura Azoka (Muskiz)

San Cosmeko Erromeria (Gordexola)

High Motors & Luxury Show

URRIA

Gangas Eguna (Zalla)

Kantauri Fest (Zierbena)

Burdin Jaia (Abanto-Zierbena)

Harley Eguna (Sodupe, Güeñes)

Sagardo Eguna (Abanto Zierbena)

Mello Saria Mendi Martxa

Abeltzaintza eta Ardo Azoka (Karrantza)

Mahats-Bilketaren Jaia (Balmaseda)

San Severino Nazioarteko Putxeren

Lehiaketa (Balmaseda)

Pico La Cruz Igoera (Galdames)

Sagardo Eguna (Galdames)

AZAROA

Gazta Eguna (Turtzioz)

Enkazine (Zalla)

ABENDUA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Artisau Azoka (Gordexola)

Balmaseda – Zalla Herri Krosa

Expoaves Hegaztien Erakusketa (Abanto-Zierbena)

Ogi Eguna (Galdames)





facebook.com/bilbaoenkarterri

twitter.com/enkarterribio

instagram.com/enkarterribio

visit enkarterri

Bizkaia | Euskadi

www.visitenkarterri.com



ENKARTUR

Martin Mendia, 2
48800 Balmaseda (Bizkaia)
(+34) 946 80 29 76
www.visitenkarterri.com
info@visitenkarterri.com

Neguko ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 9:00etatik 14:00etara | 16:00etatik 19:00etara
Asteburu eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara

Udako ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 9:00etatik 14:00etara | 16:00etatik 19:00etara
Asteburu eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

